

BACCALAURÉATS GÉNÉRAL & TECHNOLOGIQUE

SESSION 2014

BASQUE LV2

ÉPREUVE DU LUNDI 23 JUIN 2014

SÉRIE L (LVO et LVA)

Durée : 3 heures

Coefficient : 4

SÉRIE ES et S

Durée : 2 heures

Coefficient : 2

SÉRIE STMG, STI2D, STD2A, STL, ST2S

Durée : 2 heures

Coefficient : 2

Le candidat choisira le questionnaire correspondant à sa série.

L'usage des calculatrices et de tout dictionnaire est interdit.

Barème appliqué pour la correction.

<i>Compréhension du texte</i>	<i>10 points</i>
<i>Expression personnelle</i>	<i>10 points</i>

**Dès que le sujet vous est remis, assurez-vous qu'il est complet.
Ce sujet comporte 4 pages numérotées de 1/4 à 4/4.**

Ispiluak

Lilak ispiluari begiratu zion. Idazle izan nahi zuen emazte gaztea zen. Asteak iragan zituen istorio baten bila. Bi hitz baizik ez zituen asmatu : « bakarrik naiz ». Bi hitz bakar horiekin, liburu bat idazteko asmoa zuen. Agian, norbaitek « Ni ere » erantzungo zion...

5 Bere apartamendu ttipian hamar ispilu kokatu zituen. Hasieran, hamar Lilarekin bizi zela iruditu zitzaion. Gero, ispiluak etsai bilakatu ziren, haien aitzinean pasatzen zen bakoitzean bakarrik zela oroitarazten baitzioten.

Behin, sagu bat agertu zitzaion. Pozik zen bizilagun bat ukaiteaz ; baina, denbora guti barne, apartamendua saguz bete zen ; gatu bat hartu behar izan zuen. Jan eta lo egin, ez zuen besterik egiten. Ez zen Lilak espero zuen bizilaguna...

10 Berriz ispiluari begiratu zion, ea, haren orde, ezezagun bat agertzen zen ; lagun anitzez inguratua zen emaztea, gizonekin arrakasta handia zuen emaztea. Baina ez, betiko Lila ikusi zuen.

15 Atzo oporrak hartu behar izan zituen. Oporrak gorrotatzen zituen, ez baitzen aste luze horietan nehorekin mintzatzen. Bulegoan, bederen, lankideen abenturez gozatzen zen. Lilari ez zitzaion nehoiz ezer gertatzen ; orduan, gezurrak kontatzen zituen ; asteburuak lagunekin diskotekan dantzatzen pasatzen zituela, Gexan izeneko maitale zoragarriak arrosak eskaintzen zizkiola... Lanean, beste Lila bat zen, izan nahi zuen Lila ausarta. Ispiluan, herabeegia zen hogeita hiru urteko emaztea baizik ez zen agertzen. Ispiluek ez dute sekulan gezurrik erraten...

20 Ondoko apartamenduan musika entzun zezakeen. Auzoko berri bat ote ? Bihotza punpaka, belarria paretaren kontra eman zuen ; norbait musika klasikoa entzuten ari zen. Lila amesten hasi zen. Agian, paretaren beste aldean, laster lagun min bilakatuko zen pertsona bat bizi zen. Neska ala mutila ? Bost axola ! Lilak bakarkadea ezin zuen gehiago jasan.

25 Musika gelditu zen. Ate soinu bat entzun zuen.

Béatrice URRUSPIL, *Gizaki bakartiak* , 2010 (31-32.or)

QUESTIONNAIRE À L'ATTENTION DES CANDIDATS DE LA SÉRIE L LVO & LVA

(LVO = Langue Vivante Obligatoire et LVA = Langue Vivante Approfondie)

I. ULERMENA : (10 puntu)

1. Zer izan nahi du Lila protagonistak ?
2. Deskriba ezazu Lilaren apartamendua.
3. Zer dakigu Lilaz ? Nolakoa da ?
4. Zergatik gezurrak kondatzen ditu Lilak bere lankideei ?
5. Zer agertu zitzaion behin Lilari apartamenduan eta zer egin zuen ?
6. Nola hausten du bakarkadea ?
7. Zer entzuten du ondoko apartamendutik ?

Question uniquement à l'attention des candidats de la série L (LVA)

8. Zergatik, zure ustez, Lilak idazle izan nahi du?

II. ADIERAZPEN PERTSONALA : (10 puntu)

Pour les candidats de la série L – LVO :

1. Asma ezazu istorioaren segida.
2. Lilak mirailak edo ispiluak eman ditu bere apartamenduan bakardadearekin hausteko. Zuk zer diozu horta eta zer egingen zenuke?

Pour les candidats de la série L – LVA :

1. "Izan nahi dut" eta "naiz"-en artean, batzuetan alde handia bada. Zer diozu baieztapen hortaz?

**QUESTIONNAIRE À L'ATTENTION DES CANDIDATS DES SÉRIES ES, S,
STMG, STI2D, STD2A, STL et ST2S**

I. ULERMENA : (10 puntu)

1. Zer izan nahi du Lila protagonistak ?
2. Deskriba ezazu Lilaren apartamendua.
3. Zer dakigu Lilaz ? Nolakoa da ?
4. Zer agertu zitzaion behin Lilari apartamenduan eta zer egin zuen ?
5. Nola hausten du bakarkadea ?
6. Zer entzuten du ondoko apartamendutik ?

II. ADIERAZPEN PERTSONALA : (10 puntu)

1. Asma ezazu istorioaren segida.
2. Lilak mirailak edo ispiluak eman ditu bere apartamenduan bakardadearekin hausteko. Zuk zerdiozu hortaz eta zer egingen zenuke?